

F.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIKO ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.

Udal honek, Lurraldeko Toki Ogasunak Arautzeko Foru Arauaren arabera, eranskinean agertutako zerbitzu publikoak eman eta administrazio jarduerak egiteagatiko tasak ezarri eta eskatzen ditu Ordenantza honetan agertutakoaren arabera, horren zatia baita.

2. artikulua

Ordenantza udalerrri osoan aplikatu behar da.

II. ZERGA EGITATEA.

3. artikulua.

Udalak zerbitzu publikoen ematea eta tokiko administrazio jardueren gauzatzea, bai eskatu zaiolako edo partikularren zeharkako egintzak edo ez egintzak direla eta.

Bestetik, jarduera administratiboa edo zerbitzua zergapekoak zuzenean edo zeharka sorrarazitakoa denean ulertuko da jarduera edo zerbitzu hori zergapekoari dagokiolakoan edo haren gainean eragina duelakoan; hau da, zergapekoaren egite edo ez-egiteen ondorioz halako toki erakundea jarduera edo zerbitzuok ofizioz egitera beharturik dagoenean, segurtasun, osasungarritasun, biztanleriaren hornikuntza, hirigintza edo beste edozein arrazoirengatik izan dela.

III. SUBJEKTU PASIBOA.

4. artikulua.

1.- Zergadun barruan subjektu pasiboak edo zerga-obligaziodunak honakoak izango dira: Lurralde Historikoaren Zergeei buruzko Foru Arau Orokorraren 34.3 araberako pertsona fisikoak, juridikoak eta erakundeak. Hortaz, abenduaren 16ko 9/2005 Toki-Ogasun Foru Arauak 21.4 artikuluan ezarritako hipotesien barruko Tokiko Erakundeek eginiko jarduera-zerbitzuetatik eragina dutenak izango dira horiek.

2. Zergadunen ordezkotzat joko dira ondokoak:

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileak ukitzen dituzten zerbitzu edo jardueretikotasen kasuan, ondasun higiezin horien jabeak. Jabeok onuradunei jasanaraz diezazkieke kuotak.
- b) Suteen aurreikuste eta itzaltze zerbitzuak, aurri, eraikin, eraispen, salbamendu eta, oro har, pertsona eta ondasunen babesari buruzko zerbitzuak emateagatiko tasen kasuan (zerbitzuaren mantentzea barne), arriskua aseguratuta duten erakunde edo sozietateak.
- c) Lurzoru eta hiri antolaketari buruzko araudietan ezarritako hiri lizentziak emateagatiko tasen kasuan, obren eraikitzaile eta kontratariak.

5. artikulua.

Hauexek dira tasak ordaindu behar dituztenak:

- a) Partikularrek eskatutako zerbitzu edo jarduerak badira, horiek eskatu dituztenak.
- b) Partikularrek eskatu gabeko kasuetan eta jardueretan, baina beraiek eginikoak edo ez-egiteak eraginda, jarduera horiek edo ez-egiteak leporatzen zaizkien pertsonak edo Tokiko Erakundeek prestatzen/egiten dituzten zerbitzuetako onuradunak edo eragindakoak direnak.

6. artikulua.

Subjektu pasiboarekin batera, Ordenantza horren ondoriozko zerga zorreatatik erantzun beharko dute tarifak aplikatzearen arauetan aipatutako pertsonak eta asko jota, ordenantza honetako 4. artikulua dioena beteaz.

IV. SALBUESPENAK, GUTXITZEAK ETA HOBARIAK.

7. artikulua.

Salbuespenak edo bestelako onurak ematea aplikazioaren xedapen orokorretan xedatutakoaren arabera da.

V. ZERGA EGITATEA.

8. artikulua.

Zerga oinarria da zerbitzua gauzatzeko unitate bakoitza, eranskinean agertu bezala.

VI. KUOTA.

9. artikulua.

Eranskinean ezarritakoaren arabera, zerga kuota ondokoa izango da: tarifa edo horretarako ezarritako kopuru finkoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa, edo prozedura biak aplikatzearen ondoriozko kopurua.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA.

10. artikulua

Tasak zerbitzua martxan ipintzen denean edo jarduera egiten denean sortuko dira; jarduera edo espediente zabaltzen duen eskabidea aurkezten denean. Hau ez da gauzatuko beharrezkoa den ordainketa egin arte.

VIII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA.

11. artikulua.

Udalak kontzeptu bakoitzeko likidazioa egingo du, eta likidatutako kopurua esku dirutan sartu beharko da eranskinera bildutako ordainarazpen bakoitzeko arauen arabera.



IX. TASAK KUDEATZEA.

12. artikulua.

Ordenantza honetan araututako tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokienez, baita kasu bakoitzari buruzko zehapenen inguruan ere, Lurralde Historikoko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da eta Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskaritzaren gaineko zerga ordenantza orokorrean.

X. XEDAPEN GEHIGARRI

13. artikulua.

Ordenantza honek arautzen ez duen guztia abenduaren 16ko 9/2005 Tokiko Ogasun Foru Arauak ezarritakoa beteko du.

XI. AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza hau eta bere eranskina behin betiko onartu ziren lehen adierazitako datan eta indarrean jarriko da 2009ko urtarrilaren 1ean; indarrean egongo da Ordenantza aldarazi edo indargabetu arte.



ERASKINA

TARIFA ETA KARGA MOTA

I. Udal hilerria:

— Ehorzketak	
— Lurrean.....	98,56 €
— Panteoian.....	98,34 €
— Hilobian.....	87,86 €
— Desehorzketak:	
— Lurrean	124,69 €
— Panteoian.....	103,94 €
— Hilobian.....	93,46 €
— Gorpuzkien edo hausterreen ehorzketa:	
— Lurrean.....	51,51 €
— Panteoian.....	82,26 €
— Hilobian.....	61,76 €
— Hezurtegia.....	77,14 €
— Zainketa eta garbiketa. Urteko tasa.	
— Hilobiak.....	9,65 €
— Panteioak.....	17,70 €
— Hezurtegiak.....	3,80 €

II Dokumentuak luzatzea

— Hirigintzako txostenak eta ziurtagiriak.....	30,00 €
— Fotokopiak.....	0,30 €
— Konpultsak.....	1,00€/folio
(Seme-alabak jaiotzeagatiko diru-laguntzei dagozkien espedientetarako eskatzen diren dokumentuen kasuan, ez da aipatutako tasa ordain behar.)	
— CD eta DVD.....	10,00 €

III. Jarduera Sailkatuen Hasierako Kontrolerako eta Ikuskapenerako Udal Jarduketagatiko Tasa.

* Lizentzia administratibopeko jarduera sailkatua:

50 m2-raino	273,40 €
50 m2-tik gora	6,02 €/m2



* Jakinarazitako jarduera sailkatua:

50 m2-raino	136,70 €
50 m2-tik gora	3,03 €/m2

- Enpresa-jarduera berriak energia berriztagarriak sortzeko sektorekoak direnean (Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren Instrukzioa eta Tarifak onartzen dituen apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretuko 151.4. epigrafea, maiatzaren 30eko BAO), %50 murriztuko da tarifa.
- Jardueretan, energia berriztagarriak edo baterako sorkuntzako sistemak ustiatzeko instalazioetan oinarritutako energia erabiltzeko edo sortzeko sistemak jartzen direnean, %30 murriztuko da tarifa.
- Jarduera lekualdatzen denean, betiere, garatzen den jarduera berbera bada eta gaikuntzarako kasuan kasuko tituluak badaude, %30 murriztuko da tarifa.
- Lokala handiagotzen denean, betiere, handiagotutako zatia jatorrizko lokalarekin lotuta badago, eta jarduera bera zabaltzen denean, %30 murriztuko da tarifa.
- Lizentzia-eskatzaileak 10 langiletik behera dituzten enpresak badira (mikroenpresak), %20 murriztuko da tarifa.
- Merkataritzako jarduera berriak udalerriko bizilekurako hiri-eremuan jartzen direnean, betiere, lokalaren azalera guztia 100 m²-tik beherakoa bada, %20 murriztuko da tarifa.
- Tokiko proiektu eta ekimenen xedeak Urduñako Sustapen Ekonomikorako Plan Estrategikoan zehaztutako helburuekin zerikusi zuzena daukanean eta, jarduera, egin beharreko inbertsioa edo enplegu-sorreraren aurreikuspena kontuan hartuta, tokiko korporazioaren ustez udalerrirako interesgarria denean, eta udal-zerbitzuek egindako txostena aztertu ondoren (Sustapen Ekonomikorako Saila), tarifa sortutako tasaren % 50ra arte murriztu ahal izango da gehienez. Horretarako, eskabideekin batera, behar beste agiri aurkeztu beharko dira, udalak jardueran duen interesa zehaztu ahal izateko.

Interesdunak espresuki eskatuko du zerga-onurak ezartzeko, jarduera burutu ahal izateko baimena eskatzen duen orri berean.

Suposamendu horiek ez dira metagarriak izango. Horrelako egoera bi edo gehiago ematen direnean, suposamendu onuragarriena baino ez da ezarriko.

SALBUESPENA:

Nahitaezko eraispenaren, sutearen, aurri-adierazpenaren edo ezinbestearen ondorioz lekualdatu beharreko establezimenduak berriro ireki behar izatea, baita legezko xedapenak edo aginduak betetzeko asmoz lekualdatu behar direnean ere, betiere, administrazioak zehaztutako baldintzak ez betetzeagatik edo zigorra jasotzeagatik sortu ez badira.

Salbuespenak konpondutako edo berreraikitako jatorrizko lokalean ere izango du eragina, edo haren ordezkoko lokal berrian ere bai, betiere, jarduera bera garatzen bada eta lokala handiagotzen ez bada.

Zerbitzugintza Publikoagatik eta Jarduera Administratiboen Garapenagatik Tasa arautzen duen Zerga Ordenantzaren, Jarduera Ekonomikoen Titularitatea Aldatzeagatik Tasa ezarriko da honako baldintza hauek kontuan hartuta:



B) Titularitatearen aldaketa:

a) Titularitatea aldatzean berriztapen subjektiboa aitortzeko egintza administratiboak garatu behar direnean, 120,00 euroko kuota finkoa sortuko da, eta honako hauxe izango du helburu: espedientearekin batera aurkeztutako agiriak aztertzeko jarduera administratiboa ordaintzea eta jardueraren baldintza objektiboak aldatzen ez direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskapenak egitea.

b) Titularitatea aldatzean lokalean bertan aldaketak egin behar direnean edo jarduera zabaltu behar denean eta aldaketa horiek ezarri beharreko arautegira egokitzen direla egiaztatzeko asmoz aurretiazko egiaztapenak zein izapideak egin behar direnean, kasuan kasuko tasa sortuko da.

IV. Hirigintza-lizentziak eta exekuzio-aginduak

Aurrekontua:

— 600,00 eurora arte.....	17,15 €
— 600,00 - 3.000,00 euro bitartean.....	45,00 €
— 3.000,00 - 6.000,00 euro bitartean.....	73,95 €
— 6.000,00 - 12.000,00 euro bitartean.....	101,85 €
— 12.000,00 - 30.000,00 euro bitartean.....	145,80 €

30.000,00 eurotik gora, 145,80 euro gehi 123,00 euro 6.000 euroko edo frakzioko

V. Lizentzien luzapenak..... 42,90 €

VI. Segregazio-lizentziak.....42,90 €

VII. Ludotekako ikastaroak ematea.

Urduñan erroldatuta daudenak:

1. umea: 25 € lauhileko
2. umea eta hurrengoak: 20 € lauhileko

Urduñan erroldatuta ez daudenak:

1. umea: 40 € lauhileko
2. umea eta hurrengoak: 35 € lauhileko

VIII. Estolderia

- Etxeko, merkataritzako eta industriako zerbitzuak.....5, 15 euro hiruhileko.

IX. Epigrafea: Hiri-hondakin solidoen bilketa eta kentzea



- Etxebizitzak27,87 euro hiruhileko
- Hamar pertsona baino gutxiagoentzako ostatuak76,64 euro hiruhileko
- Hamar pertsona baino gehiagoentzako ostatuak 127,50 euro hiruhileko
- Elikagaigintza, ostalaritza eta edari alorreko dendak (tabernak, dastaketa-guneak, kafetegiak eta jatetxeak76,64 euro hiruhileko
- Denda orokorrak52,70 euro hiruhileko
- Banketxeak.....52,70 euro hiruhileko
- Enpresak eta Industria establezimenduak76,64 euro hiruhileko
- Ekintzarik gabeko merkatako lokalak eta lokal hutsak (kontagailu dutenak)
.....19,58 euro hiruhileko
- Jabeen erkidegoak (atari-garbiketa)19,58 euro hiruhileko

Bideko garbiketa kalez kaleko eta salmenta ibiltariari buruzko atala.

Elikagai edo landareen postuetarako Bideko Garbiketa gehigarria:

- Postu soilak (4 m lineal baino gutxiago)).....0,5€ /egun
- Postu bikoitzak (4 m lineal baino gehiago)).....1€ /egun.

X. Ibilgailuen gelditzea..... 129,00 €

XI. Ibilgailuak bide publikotik garraiotzea..... 107,00 €

XII. Ibilgailuak zaintzea.....10,70 €/egun

XIII. Frontoiko kantxaren alokairua (orduko)

a) Kantxa argirik gabe erabiltzeagatiko prezioa/ordua:

a.1) Erroldatutakoak: 4,10 euro.

a.2) Erroldatu gabeak: 6,15 euro.

b) Kantxa argiarekin erabiltzeagatiko prezioa/ordua:

b.1) Erroldatutakoak: 5,30 euro.

b.2) Erroldatu gabeak: 8,70 euro.

c) Kantxa erabiltzeagatiko prezioa/ordua:

c.1) Irabazi asmorik gabeko elkarteak: Erroldatu gabeentzako tarifa.



c.2) Irabazi asmoa duten elkarteak, enpresak, norbanakoak, alderdi politikoak, sindikatuak, kirolarekin zerikusirik ez duten ekitaldiak:

c.2.1) Egun erdi: 118,50 euro.

c.2.1) Egun osoa: 219,15 euro.

c.3) Ez dira aurretik aurreikusitako tarifak aplikatuko kasu hauetan:

c.3.1.) Urduñako udalerriko irabazi asmorik gabeko kultur edo kirol elkarteak, instalazio horren erabilera intentsiboa behar badute euren xedeak bete ahal izateko jarduerak egin ahal izateko.

c.3.2.) Irabazi asmorik gabeko kultur edo kirol elkarteak, egin behar duten jarduera puntuala interesgarria bada Urduñako udalerrirako.

d) Dutxa zerbitzua: 2 euro/pertsona.

e) 16 urtetik beherakoak: Instalazioen erabilera doakoa izango da, udalerrian errolatuta badaude eta instalazioa erreserbatuta ez badago.

Tarifa hori duten adingabeek ezin izango dituzte instalazioak erreserbatu.

XIV. La Muerako udal-igerilekuen erabilera

Erroldatuak: (ABONUAK)	5 -11 urte bitartekoak	5,00
	12 -14 urte bitartekoak	10,00
	15 - 65 urte bitartekoak	18,00
	65 urte baino gehiago (Jubilatuak eta pentsiodunak)	10,00
	Familiakoa (14 urtera arteko seme-alabak)	25,00
	Erroldatu gabeak: (ABONUAK)	5 -11 urte bitartekoak
	12-14 urte bitartekoak	15,00
	15 - 65 urte bitartekoak	35,00
	65 urte baino gehiago (Jubilatuak eta pentsiodunak)	15,00
	Familiakoa (14 urtera arteko seme-alabak)	50,00
<u>Asteguneko sarrerak</u>	5 - 13 urte bitartekoak	1,50
	14 - 17 urte bitartekoak	2,00

	18 - 65 urte bitartekoak	3,50
	65 urte baino gehiago (Jubilatuak eta pentsiodunak)	1,50
Larunbateko eta jaiegunetako sarrerak	5 - 13 urte bitartekoak	2,00
	14 - 17 urte bitartekoak	2,50
	18 y 65 urte bitartekoak	4,00
	65 urte baino gehiago (Jubilatuak eta pentsiodunak)	2,00

Urteak ekitaldian beteko direla ulertuko da.

XV. Ayuda domiciliaria

Ekarpen ekonomikoa egin ahal izateko baremazioa honakoa izango da:

A) Pertsona onuradunen gaitasun ekonomikoa:

Gaitasun ekonomikoa honen arabera kalkulatu da: errenta eta pertsona onuradunen kopurua.

1.- Errenta da bizikidetzako unitatean dagoen diru-sarrera osoa eta/edo zerbitzu hauek egitetik onuradunak direnak:

- Lan-etekinak, pentsioak eta gizarte-aurreikusteko zerbitzugintzak barne erregimena kontuan hartu gabe.
- Higidarrien eta higiezinen kapital-etekina.
- Enpresen edo profesional-jardueren etekinak.

2- Kenkariak:

Aurrekoa kontuan harturik ere, honako kenkariak eta irizpide osagarriak ezartzen dira:

a) Minusbaliotasunaren %65 edo gehiago duten pertsona urrituak eta mendekotasun handiaren III. graduak, 2. eta 1. mailak: 30 euro pertsona/ hilean.

Familia-unitate batean gehienezko kenkaria 720 euro urtean izango da.

b) Ohiko etxebizitzaren alokairua. Gastuaren gehienezko kenkaria % 35ekoa izango da 2008. urtean gehienezko kopurua 1.740 euro izango da.

c) Etxebizitza edo ohiko ostatua erosteagatik izan diren interesak edo maileguen amortizazioa Gastuaren gehienezko kenkaria % 35ekoa izango da 2008. urtean gehienezko kopurua 1.740 euro izango da.

B) Erabiltzaileen ekarpen-ekonomikoak ezartzeko irizpideak

Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen dutenek zerbitzuaren ekarpenean lagunduko dute ahalmen ekonomikoaren arabera eta A) atalak ezarritakoan oinarriturik. Formula hau izango da kontuan ekarpen-muga ipintzeko:



{(Urteko diru-sarrerak ¹F.U./12) – (² O.E. indarreko hilabetea eta F.U. personen arabera)} x15

$$\frac{\text{-----}}{100} = R$$

$$R \times 1 + \frac{\text{(F.U.ean hilean emandako ordu-kopurua)}}{100} = \text{Hileko kopurua}$$

$$\frac{\text{Hileko kopurua}}{\text{Emandako ordu-kopurua/hila}} = \text{Batez besteko prezioa /ohiko ordua}$$

¹F.U: Familia-unitatea

²O.E: Oinarrizko errenta

Formula honek Etxeko Laguntza zerbitzua emateagatiko Familia-unitatearen ekarpen ekonomikoa ezartzen du. Edozein kasutan ere, hau ez da zerbitzuaren kostua baino handiagoa edo 10 euro/ hilean baino gehiago izango. Ekarpen ekonomikoko hori urtero berrituko da arautegi honetako 22. artikulua eta dagokion Udal Ordenantzak dioena kontuan hartuz.

XVI. Udal baskula:1,00 €/pisaldi bakoitzeko

XVII. Udan Euskaraz

Erroldatuak:

Lehen umea: 50€

Bigarren umea eta ondorengoak: 30€

Ez erroldatuak:

Lehen umea: 70€

Bigarren umea eta ondorengoak: 50€

XVIII. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak edukitzeko lizentzia.....Tasa: 200 euro.

XIX. Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren udal-erregistroko inskripzioaren egiaztatzea.....Tasa: 100 euro.

XVIII. epigrafeko eta XIX. epigrafeko hobaria:

Kasuan kasuko tasaren gaineko %90eko hobaria lortu nahi izanez gero, tokiko erakunde honek antolatutako ikastaroan parte hartu eta "gai" emaitza erdietsi beharko



da. Eraitza hori lortzeko, parte-hartzaileen asistentzia ikastorduen %90ekoa izan beharko da.

XX. Etxeko animaliak biltzeagatiko tasa

- a) Etxeko animaliak bildu eta zaintzeagatik, txakurtegira eramanez: 7,00 euro/eguneko
- b) Etxeko animaliak bildu eta zaintzeagatik, txakurtegira eramanez:
 - Joatea: 57 euro.
 - Biltzea/eskulana: 64 euro.
 - Txakurrak txipa badu:
 - o Egonaldiko eguna, jabeak jaso arte: 19 euro/eguneko
 - o Barrutik eta kanpotik parasitogabetzea (beharrezkoa bada): 23 euro.
 - o Orduñako udalerrian entregatzeko zerbitzua, animalia jabeak eskatuta: 32 euro.
 - Txakurrak txipik ez badu baina jabea badu:
 - o Albaitari azterketa eta parasitogabetzea: 64 euro.
 - o Txertoa jartzea: 57 euro
 - o Egonaldiko eguna, jabeak jaso arte: 8 euro/eguneko.